

Rafting-jaitsiera egingo dugu?

—*Kirola naturan*, bai esan?

—Egun on. Gelakideok arrisku-kirolen bat egitea pentsatu dugu, eta informazioa nahi dut. Zer kirol eskaintzen dituzue?

—Aukera asko ditugu, baina, taldean egiteko, jendeak rafting-jaitsiera egiten du gehienetan. Errekan behera jaisten gara ontzi pneumatiko batean.

—Dibertigarria ematen du. Zein garaitan antolatzen dituzue jaitsierak?

—Udaberrian, martxotik aurrera, eta, udan, urrira arte.

—Primeran. Zer ordutan izaten da, goizean goiz?

—Ez, etortzeko asmoa baduzue, hitz egingo dugu. Zuek nahi duzuen orduan egingo dugu.

—Ados. Gu hogeita hamar lagun gara. Zenbat lagun joaten dira ontzi bakoitzean?

—Ontzi bakoitzean, sei lagun.

—Eta zenbat ontzi jaisten dira batera?

—Bost edo sei ontzi jaisten dira, normalean.

—Eta, zer material eraman behar dugu?

—Batare ez. Prezioaren barne dago. 30 euroan dena daukazue: jaitsiera, gidaria, neoprenozko jantzia, eskarpinak, txalekoa, kaskoa eta pala.

—Gidaria dago, orduan, eskerrak! Guk ez dugu inoiz raftingik egin! Zenbat monitore doaz ontzi bakoitzean?

—Lasai, ontzi bakoitzeko bat. Arrisku-kirola da, eta erne egon behar dugu.

—Ados. Nik uste dut animatuko garela, oso itxura ona dauka! Aizu, azken galdera: zer arropa eraman behar dugu?

—Neoprenoaren azpian jantzteko, ekarri arropa eroso, eta gero aldatzeko, ba, nahi duzuen.

—Ados. Ikaskideekin hitz egingo dut eta esango dizut.

—Oso ondo. Hitz egin zuen artean eta, erreserba egiteko, bete ezazue ikastetxeentzat Interneten dagoen galdera sorta.

—Mila esker. Horrela egingo dugu. Aio!

—Agur.